

UDAL-BATZARRA 5/05

UDAL-BATZARRAK, 2005eko maiatzaren 5ean EGINDAKO OHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia

M^a Carmen Egurza Salaberria

Nieves Alarcos Martinez

Jesus M^a Arsuaga Lizaso

IDAZKARIA:

Nekane AGIRRESAROBÉ ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2005ko maiatzaren 5ean iluntzeko zortziak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik Mikel Zubillaga Galarraga zinegotzia 4. puntuari sartzen da, Kepa de la Iglesia eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

1.- 2005EKO MARTXOAREN 17 ETA 22AN OSPATURIKO AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak 2005eko martxoaren 17 eta 22an egindako bilkuren aktak irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

Son leidas y aprobadas por unanimidad de los reunidos las actas de las sesiones celebradas con fecha 17 y 22 de marzo del 2005.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 79TIK 1176A BITARTE, BIAK BARNE.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 79tik 117ra, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números 79 al 176, ambos inclusive; dándose la

| Corporación por enterada.

3.- AREA 1 ETA AREA 2 TRUKAKETA HITZARMENA ALDATZEKO PROPOSAMENA, ZEHATZ-MEHATZ ARRIDON, S.L-EK ANOETAKO UDALARI EMAN BEHARREKO LOKAL KOMERTZIAL BATI BURUZKOA.

Arau Subsidiarioetako 1 Areak dauzen udal lur-sailak eta Arridon, S.L jabetza duen Arau Subsidiarioetako 19 Areako lur-sailak eta 140 m²tako lokal baten arteko trukaketa espedienteak ikusi ondoren.

Arridon, S.L-k aurkezturiko idatzia ikusi ondoren, non, 140 m²tako lokalaren trukaetari buruzko aldaketa bat proposatzen duen. Proposamen honek, 2004ko urtarrilaren 14 datarekin alkate eta Obra eta Urbanismo Batzorde Informatzaileko Presidentearen oniritzia du.

Alkate jaunak, Jose Ignacio Otermin zinegotziari ematen dio hitza eta honek ondorengoa adierazten die bertaratutakoiei:

“Hitzarmena firmatu zen 2002 urtean eta puntu asko daude baina hauetako bat zen Arridonek eman behar ziola udalari lokal bat etxe berrietan. Lokal honen neurriak kalkulatuta 140 m²takoa zen. Obra bukatzen ari zenean Arridon etorri zen esanez, hor zegoen zati bat, 20 m²tako kuadratu txiki bat, aszensorearen atzean geratzen zena, gure lokalarentzako ez zuen interesik eta beraientzat bai beren lokala pixka bat zabaltzeko. Orduan eskaera hori egin zuen, onartu zitzaion, gure lokalak ez zuen ezer galtzen aprobetxamendu berdina zeukan eta orduan proposatzen dena da aldaketa egin, lokala 20m² hori eskuratu beharrean eskuratzen dugu bere balorazioa dirutan”.

Udalbatzak aho batez zera onesten du:

Lehena.- 2002ko maiatzaren 28ko Udalbatzak onetsiriko hitzarmen-trukaketa aldatzea ondorengo puntuetan:

Visto el expediente de permuta de terrenos de propiedad municipal sitios en el Area 1 de las Normas Subsidiarias, por terrenos comprendidos en el Area 19 de las Normas Subsidiarias y un local de 140 m², propiedad ambas de “Arridon, S.L”.

Visto el escrito presentado por ARRIDON, S.L proponiendo la modificación del compromiso referente a la permuta de un local de 140 m² y que dicha propuesta ha sido conformada por el Alcalde y el Presidente de la Comisión Informativa de Obras y Urbanismo con fecha 14 de enero de 2004.

El Sr. Alcalde cede la palabra al concejal Jose Ignacio Otermin y éste manifiesta a los presentes lo siguiente:

La Corporación acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- modificar el convenio-permuta aprobado en sesión plenaria de fecha 28 de mayo de 2002, en el siguiente sentido:

1.- ESATEN DUENEAN Arridon, S.L-ek Anoetako udalari 140m2tako lokal bat emango dio.

ESAN BEHAR DU: Arridon, S.L-ek Anoetako udalari 119m2tako lokal bat emango dio.

2.- ESATEN DUENEAN Anoetako Udalak Arridon, S.L-ri 89.657,72 eurotako zenbatekoa ordainduko dio

ESAN BEHAR DU Anoetako Udalak Arridon, S.L-ri 59.060,72 eurotako zenbatekoa ordainduko dio.

Bigarren.- Akordio hau gauzatu ahal izateko Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jauna ahalmentzea.

Hirugarren.- Akordio honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea

4.- ANOETAKO UDALAREN PROIEKTU OPERATIBOA 2005: EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKINTZA POSITIBOEN III. PLANA GARATZEA.

Gizarte laguntzaileak eta kultur dinamizatzailerak Jarduera positiboko hirugarren plana garatzen duen 2005 urteko Anoetako Udalaren Programa eragilea aurkezten dute; bertan, emakumeen eta gizonen artean aukera berdinak izateari buruz informatzeko, sensibilizatze eta trebatzeko jarduerak proposatzen direlarik.

Alkate jaunak, bertaratutakoie

1.- DONDE DICE que Arridon S.L entregará al Ayuntamiento de Anoeta un local de 140 m2

DEBE DECIR que Arridon, S.L entregará al Ayuntamiento de Anoeta un local de 119 m2.

2.- DONDE DICE que el Ayuntamiento de Anoeta abonará a Arridon, S.L la cantidad de 89.657,72 euros.

DEBE DECIR que el Ayuntamiento de Anoeta abonará a Arridon, S.L la cantidad de 59.060,72 euros.

Segundo.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Fidel Azpiroz Arrillaga para la formalización del presente acuerdo.

Tercero.- Dar cuenta a la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa de los precedentes acuerdos.

Visto el Programa Operativo del Ayuntamiento de Anoeta para el 2005 en desarrollo del tercer plan de acción positiva para llevar a cabo actividades relacionadas con la información, sensibilización y formación en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres presentado por la trabajadora social y la dinamizador sociocultural.

El Sr. Alcalde manifiesta a los

ondorengo adierazten die:

“Gizarte laguntzaileak eta kultur teknikariak eginiko programa da, bertan besteak beste ondorengo jarduerak buruko dira: Udaletxean hizkuntza irizpideak finkatu generoari dagokionean, honi buruz, txosten bat egingo da, nolabait matiz sexista duen terminologia zenbat erabiltzen dugun jakiteko zertan zuzendu behar dugun edo sexista, despretxua generoari buruzkoa. Martxoaren 8an, emakume nazioarteko eguna ospatzeko egitaraua antolatuko da, bortizkeria sexista aurkako egunaren inguruan sensibilitate kanpaina bat antolatuko da, hizkuntza arloan Anoetako ikastolarekin elkarlanean berdintasunaren gaia lantzeko ikasle eta irakasleekin.

Programa hau aurrera eramateko teknikoak proposatzen duten 6000 euro eta udal aurrekontuetan 3000 eurotako asignazioa dagoenez, ekintza hauek berrantolatzea proposatzen da asignatutako diruarekin burutu ahal izateko.

Udalbatzak, aho batez onesten du:

presentes lo siguiente:

La Corporación acuerda por unanimidad de los reunidos:

Lehenengo.- Aurkezturiko “anoetako Udalaren proiektu operatiboa 2005: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ekintza Positiboen III Plana Garatzea” onestea.

Bigarren.- 3000 eurotako aurrekontua onestea 1 0000.227.310.20.99 “310.02 emakumeen berdintasuna programa” partidaren kargura gastua xedatzea.

Primero.- Aprobar el plan “Anoetako Udalaren proiektu operatiboa 2005. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ekintza Positiboen III. Plana Garatzea” presentado.

Segundo.- Aprobar el presupuesto por importe de 3000 euros. Gasto a contabilizar con cargo a la partida 1 0000.227.310.20.99 “Programa 310.20 igualdad de oportunidades de la mujer” del Presupuesto del Ayuntamiento de Anoeta.

5.- HIRUGARREN ADINA HIRUGARREN MUNDURAKO ELKARTEARI, LIBURUTEGIAN ERABILPENETIK ERRETIRATU DIREN EUSKARAZKO ETA GAZTELERAZKO LIBURUAK DOHANIK EMATEKO HITZARMENAREN BERRI EMAN.

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengo adierazten die:

El Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

“Esan, hau soilik Anoetako liburutegian erabilpenik gabeko hainbat liburu bazeudela. Batzuk modaz pasa direlako eta beste batzuk jendeak kontsultatzen ez dituelako etabar, eta egin da horrelako garbiketa bat eta handik atera ziren hiru motatako liburuak: euskaraz batuan eta bizkaieraz eta gaztelerazko liburuak. Jarri ginen elkarte honekin harremanetan eta hitzarmen bat egingo dugu liburu horiek dohainik emateko. Zuzenduko diren lekuak izango dira euskera batuan eta gipuzkeraz daudenak Donostiako San Jose ikastetxera. Bizkaieraz daudenak Begoñako Andra M^a ikastetxera eta gaztelerazkoak Guatemalako Fe y Alegria elkartera bideratuak izango dira. Esan Donostia eta Begoñako ikastetxera nolabait kanpotik etorritako hainbat ikasle daudela eta lagungarri izango zaien liburuak dira.

Anoetako Udala eta “Hirugarren adina hirugarren mundurako” GKE izenean Mertxe Alzuguren andrearen artean Udal Liburutegian erabilpenetik erretiratuak zeuden liburuak dohainik emateko sinaturiko hitzarmenaren berri izan du Udalbatzak.

La Corporación se da por enterada del Convenio a firmar entre este Ayuntamiento y Mertxe Alzuguren en representación de la asociación ONG “Tercera edad para el tercer mundo” para la donación de libros en desuso existentes en la Biblioteca Municipal.

6.- GALDE-ERREGUAK

Galde-erregu garaian ondorengoak izan dira:

En el periodo de ruegos y preguntas se formulan las siguientes:

2. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek galdetzen du:” 113 dekretuan besteak beste, Ulma enpresari alkatearen udal-dedikazioari buruzko gastuaren onespena agertzen da. Honi buruz, beste pleno batean eskatutakoa erantzunez txosten bat igorri zaigu aste honetan eta komentario bat egin nahi nuke. Nik dakidala ordainsaria hau da zure soldataren erdia, jornada erdia egiten dezu. Orudan lantokian jasotzen ez duzun erdia hemendik hartzen duzu?. Heman diguten txostenean nik uste dut datu batzuk falta direla, alde batetik ez dakigu astean edo hilean zenbat ordu pasatzen diren balorazio hori egiteko; beste alde batetik ez dugu ulertzen ordainsariak normalean hilero hilero berdina izaten dira, eta ikusirik zure ordainketak desberdinak direla ez dikigu astean edo hilean sartzen dituzun ordu horiek bariabileak izaten diren. Ordainketa hauek justifikatzeko gustatuko litzaidake zuri eskuratzea alkate izan aurreko errenta aitortpenak.

Alkateak zera erantzuten dio: Legislatura honen lehenengotako pleno batean onartua izan zen pasa zaizuen txostenean esaten den bezala, fabrikako ziurtagiriarekin, non esaten den ordaindu gabe geratzen den soldataren zenbatekoa, udalak ordainduko zuela. Uste dut minimo batzuk direla, zeren eta normalean kontzeptuak fijoak dira eta diferentzi hori alde txiki hori, ez dakit, neurtuta daukazu?

Bertaratutakoak: ez, zifrak hilero ezberdinak dira. Ehun eta gutxi, batzuetan miloia larehun, bestetan miloia bostehun izaten da, horrek zer esan nahi du dedikazioa gehitu egin delako edo gutxitu, edo simpleki horrela izaten delako.

Alkateak dio, orduna izan liteke hilero ordu desberdinak izaten direla, beste kontzeptutako bat izan liteke Lagun-Aroko errezetak nominan sartzen direla, horretaz aparte bazkaltzeko tiketak erosi behar izaten ditugu. Azken batean egiten dena da nomina zati bi, gero kontutan hartu behar da zein hiletan aktualizatzen den, adibidez, hile honetakoa ezberdin izango da martxoa baino zeren urteko aktualizazioa hile honetan tokatzen da; baino bariabilidade horiek oso txikiak izaten dira. Orain arte Lagun-Arok errezetak ordaindu dizkigu, hemendik aurrera seguritate soziala pasatzen gara. Ez daukat detalle gehiago, orduaren dedikazioa badakit zenbat ordu dedidatzen diodan udaletxeari.

J.I Otermin zinegotziak azaltzen du: ulertzen ez dudana zergaitik hainbeste interesa jakiteko alkateak zenbat irabazten dun eta zenbat ordu sartzen ditun. Nik gogoratzen dut Joxe Marik hemen zegoenean berak utzi i zuen ez dakit zenbat ordu ikastolan, problemarik gabe onartu zen, sekulan ez zitzaion eskatu fitxatzea jakiteko

zenbat ordu sartzen zituen udaletxean, konfiantza falta ematen du, gauzak gaizki egiten ari garela eta, behin eta berriro, behin eta berriro, legala den ala ez dezan.

Bertaratutakoak erantzuten dio: behin eta berriro horregatik da, behin gauza guztiak mahai gainean jartzen ez duzutelako. Oraindik ez didazue erantzun.

Otermin zinegotziak dio: baina pribatitatea badago, jakitea batek zenbat irabazten duen eta non gastatzen duen bere dirua...

Bertaratutakoak: ez ez, non gastatzen duen ni ez diot galdetu ez honi ez inori.

Alkateak erantzuten dio: Inaki baita ere ulertu behar duk, erantzuna norbere nahaia asetzea inoiz nahi ez denean erantzun posiblerik ez dago.

Bertaratutakoak: Pasa didazuten txosten horretan ez didazue eginiko galderari inongo erantzunik ematen; tonto arpegia ikusi didazue edo ze ikusi didazue? Nik badakit noski baietz ordainsariak jaso dezakezuela, hori ez dut dudan jartzen, agian nola egiten diren.

Alkateak erantzuten du: Beste zerbait badago? Alkatearen soldata baino inportanteagoa badago herri honetan eta atzentzio handiagoa jarri beharrekoak, nik bakarrik dekretu pilo bat direne aipatzekotan orokorren esanda, gehienak dira tramite hutsekoak, ordainketak, hirigintzako baimenak... aipatzekotan pare bat aipatuko nituzke, batetik 2000 biztanletik behera udalari laguntzak emateko Foru Aldundiak atera zuen dekretua erantzunez, laguntza eskatu zen hiru proiektutan banatuta, eskatu zen zati bat behintzat polideportiboko urbanizazioa, beste aldetik bi proiektutxo akzesibilitate aldetik, bai apeaderoaldea eta jolasparkeko, Aburuza etxeen jolasparkeko akzesibilitate txarra mehoratzeko. Beste aldetik administrari postuaren oinarriak publikatzeko egin den dekretua”

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko zortzi terdiak direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.